

## *Paulo VI eta Camilo Torres*

*Paulo VI'gnaren Bogota'ko hitzaldiak direla bide zabaldu diran iritzi-emate batzuetan, lerro artean, asmo bat nabaritu bide dut. Nazioen hobekuntza ta aurrerapena nahi dutenak eta biolentzia nahi dutenak bateratzea. Eta baita aurrelari hauek Paulo VI'gnaren beste muturrean ikusi nahi izatea ere, beren jokabideetan. Konkretuan: Camilo Torres.*

*Eta aitor dezagun, pertsonak eta prolemak (eta soluzio-bideak, noski) gaingiroki eta axaldira ikusiaz, hala ematen du. Funtzean, ordea, ez dut uste.*

*Paulo VI'gnak, prentsak lau aizeetara aldarrikatu baitu, ba dakigu biolentzia kondenatu duela. Garbi asko esan baitu biolentzi hori ez dagoela ados ez Ebanjelioarekin, ez Kristianismuarekin. Xinplekeria honekin utzi digute informazioak Aita Santuaren pentsaera. Berak egin duen planteamentuaren muiña ez dute sakondu.*

*Eta beste aldetik, Camilo Torres nola presentatu ziguten? Esan beharrik ez. Camilo Torres'ekin eskema bat egin dugu, bandera bat. Ta nahi baduzute, mito bat. Eta Colombia'ko Gonzalo Alfonso Pineda G. jaunaren oharrez, mito bilakatze hori izan da hain zuzen Camilo'ren pentsamentuaren galera nagusia. Izan ere, Camilo'ren pentsamoldea garbi jakiteko ezin gindezke lau informazio merkez konformatu. Mito eta eskema baten informazioak artzen baigabil-tza. Bere garaiean, komenientziagaitik (beste zenbait arrazoi aparte utziaz) agintariek topiko bat gaiñeratu zioten, hots, komunista. Hilda gero ere bere izenari ez zaio justiziarik egin, ez agintarien partetik, eta ez (kasu!) Colombia bertako eta kanpoko partidu*

interesatu batzuen partetik. Pertsona bakoitzak eta talde bakoitzak nahi duen erara epaitzen du Camilo. Horregatixe diof bere pentsamentua "erabilia" dala. Eta hain zuzen alderdikeria honek (nagusienak eta talde batzuenak) bihurtu du, gehienik, Camilo Torres biolentziaren supergizona. (Orain ez dut aztertuko zergatik agintariek eta zergatik partidu batzuek egin duten Camilo biolentziaren eragillerik nagusia. Labur esanda: batzuk bere influentzia desegiteko eta besteek bere eragiñez baliatzeko. Gisa da).

Naturalki, eskeiñi diguten eskema errex hontaz baliaturik, garbi ta argi geratu da guretzat Paulo VI eta Camilo Torres egoera baten soluzioaren bi muturretan zinki finkaturik daudela. Ezetz uste dut. Ez daude hain urruti, baldin egiaren arabera errealitatea ikusi nahi badugu.

Helburua, bera da: lurralde hoi en egoera larria (ta negargarria) soluzionatzea. Torres, bere Colombia'z mintzatzen da, eta Paulo VI Ego-Ameriketaz. Bidean da ixtiltua, hor letorke eztabaida. Zein jokabide aukeratu behar da, hortarako?

Harritzeko da. Camilo Torres'ek eta Paulo VI'gnak planteamentu bera proposatzen dute: maitasunean finkatua, alegia.

Camilo Torres'ek apaizgoa (samiñez eta dolorez, bere hitzak siñistu nahi baditugu) utzi zuanean, "Tiempo"-n ixkiriatu zuanez (65-VI-25) ikusten dugu nola bere bizitzaren eta ekinbideen xedea maitasuna zan: "Lagunurkoari serbitzeko erarik garbiena zala ustez aukeratu nuen kristianismua. Apaiz betiko izateko Kristok aukeratu ninduan, nere bizikideen maitasunari, denbora guzian, eskeintzeko nahiarekin. Soziologo bezela, teknika ta zientziaren bidez, maitasun hori eragikorra izatea nahi izan dut. (. . .) Erreboluzio-burruga, kristau eta apaiz-burruga dela uste dut. Bere bidez bakarrik lort dezakegu, gure aberriaren kinka konkretu hontan, gizonek beren lagunurkoeri euki behar dieten maitasuna".

Erreboluzio hitza aditu dugu, baiña ez geitezen hitz borobil honen hotsarekin fidatu. Erreboluzio hitzaren barrunbea aztertu beharra dago Camilo'rengan. Torres'en ideologia (ene ustez) pittin bat sakondu duen Juan Gomis'ek dionez, Camilo'k erreboluzioa diorean, ez du armazko burrukarik ulertzen, egituren aldakuntza sakona baizik.

*Aipatu dugun idazki hortan bertan aditzera ematen duanez, pausu hori (apaizgoa uztea, alegia) eman badu, maitasunaren eska-bidea dalakoan egin du: "Uste dut lagunurkoarekiko maitasunaren agindua eragikortasunez betetzeko konpromisuak behartzen nauela sakrifizio hori egitera. Gizonen erabakien eta asmoen helbururik nagusiena elkar-maitasunak, goitiko maitasunak behar du izan".*

*Beraz, alde batetik, kideenganako maitasuna daukagu, eta, bestetik, alkar-maitasun honi benekotasuna emateko, maitasun eragikorra, efikazia daukana. Hots, hitzak eta egintzak.*

*Paulo VI'gnak ere, Aurrerakuntza gaitzat arturik, Bogota'n egindako hitzaldian, maitasunean oiñarritu du Ego-Ameriketaren soluzioa, helburu, indar eta bide dan maitasunean.*

*"Maitasunak behar du izan jende xumea, okerra, tajugabea, sufritua (eta batzuetan maliziatia), herri berri, bizi ta egille baten, herri batu, gihartsu, kontzientzidun, aberats eta zoriontsu baten eraberritzeko lokarria".*

*Baiña, lehen, Camilo Torres'en garaiean, eta orain, Aita Santua Bogota'n dagoela, zalantza bera datorkio edozeini burura, maitasun honen indarrari ta ahalari dagokiona, alegia.*

*Camilo Torres'ek, horregatixe, maitasun eragikorra eskatzen zuen.*

*Eta Paulo VI'gnak ere bai, mintzaera desberdiñarekin bada ere. Hain zuzen, galde-erantzunak berak egin ditu.*

*"Aski al da alkar-maitasuna? Neiko al da maitasuna mundua jasotzeko eta gizartearen aurrerakuntza aldatzaille ta berritzaileari erasotzen dioten eragozpen kontaeziñak garaitzeko, alegia, historiak, etnografiak, ekonomiak, politikak, alkar-bizitzaren erakundeak, presentatzen dizkigutenak? (...) Erantzun behar da: bai eta ez. Bai; mantasuna beharrezkoa da eta aski da bizi geran mundu makur honen fenomeno berritzaile handiaren printzipio eragille bezela. Ez; ez da aski maitasuna, baldin hitzezko ta sentimentuzko teoria hutsean gelditzen bada eta beste bertute batzuk ez badiote laguntzen; lehenengoa, justizia...".*

\* \* \*

*Merkantzi merkearen bezero gera. Baietz! Eta hola, Camilo Torres ezagutzen baldin badugu, "el cura gerrillero" bezela eza-*

gutzen dugu. Mutur hontatik ari osoa datorrigu. Aise siñisten dugu Camilo dala biolentziaren eragille nagusienetariko bat, handiena ezpada.

Arinkeria asko dago informazio-bideetan. Eta arinkeria bakarrik balitz, gaitz-erdi. Hemen alderdikeria ere ez da falta, lehen aipatu dugunez.

Hala ote da, alegia, Camilo Torres biolentziaren aldezkari ta eusle al da? Nekez da siñistea bere jokabidearen zergatia ikusita.

Egia da Torres mendira joan zala. Jakin behar da, halere, ea igesegite hau eboluzio baten ondorena izan ote zan, edo, bestela, bizi zuen kondizionamentuak bultzatuta (edo itsututa) eman zuen pausu bat. Gizakume bat ezur-mamiz egiña baitago; ez ideiaz ta ez idealez. Haren bizitzan ikasiak direnak ere ez daude akort bere bizitzako gertakizun hau epaitzean, eta ez dakigu arrazoiaren indarrez mendira joan ote zan ala indarraren arrazoiz. Dakiguna da, bere bizitza osoa azterturik, mendiko bizitza honek ez duela batzuk eman nahi izan dioten garrantzirik, aste batzuk soilik izan ziran-eta. Aldiz, beste hau ere ba dakigu: maiz azaldu zala biolentziaren etsai bezela. Mendira igo baino urte bete lehenago, zera idatzi zuen: "... Biolentziarik ez dugu nahi, indarririk ez dugu nahi, gehienentzako agintaritza nahi dugu".

Ez dut ixtudio sakonik egin, ez da nere asmoa izan. Bateren bat, beharbada, nik diodana ala beste aldizkari batzuetan irakurri duena, bietan zein dan egia ez dakialarik gera liteke. Bidezko danez, gaia sakontzen asi behar du holakoak. Eta horrekin, nerea egin dut.

Bukatzeko, hain urruti ez daudela Paulo VI eta Camilo Torres Restrepo azkenekoz frogatu nahi nuke. Harrigarri gerta da-kioke irakurleari Paulo VI'gnak Bogota'n esandakoaren laburpen gisa, Camilo Torres'en hitzekin amaitzea. Camilo'k kristaueri eging-dako Deiairen (65-VIII-26) berbak dira: "Katolizismuan printzipalena lagunnurkoarekiko maitasuna da. 'Lagunurkoa maite duenak legea betetzen du' (S. Paulok, Errom. XIII, 8) Maitasun honek, benetakoa izan dedin, efikazia billatu behar du".

Joan Mari TORREALDAY